

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bi lehiaketak ikasleek Nafarroako eremu babestuen gainean duten ikuspegia sarituko dute

Ingurumen Departamentuak I. Argazki Lehiaketa eta II. Mikrobideo Lehiaketa antolatu ditu

Osteguna, 2017.eko azaroak 9

Foru Gobernuak bi lehiaketetarako deialdia egin du Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentuaren bidez: batetik, argazki lehiaketa eta bestetik mikrobideo lehiaketa. Gaia Nafarroako eremu babestuen ingurukoa izango da.

Zehazki, I. Argazki Lehiaketa (LHko 3. eta 6. maila arteko ikasleentzat) eta II. Mikrobideo Lehiaketa (DBHrako). [Oinarriak gaur argitaratu dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#). Bi lehiaketen helburua da ikasleek sentikortasun eta ezagutza handiagoa izatea ingurumenaren gainean oro har, eta Nafarroako eremu babestuen balioaren gainean bereziki. Horrez gain, kontserbatzeak eta errespetatzeak duten garrantziari buruz jabetzea ere da helburua.

Lanak bihartik aurrera aurkez daitezke, azaroak 10, abenduaren 12ra arte, Departamentuan bertan.

Lehiaketen oinarriak

Zehazki, **I. Argazki Lehiaketa**, "Ezagutu Nafarroako naturagune babestuak", Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko ikasleentzat da. Natura 2000 Sareko edo Nafarroako Eremu Babestuen Sareko toki baten argazki bat egin behar dute.

Lehiaketa honek bi kategoria ditu: bat, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat,

eta bestea Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Kategoria bakoitzerako sariak hauek izango dira: tablet bat eta diploma bat irabazlearentzat eta naturari buruzko liburu lote bat zentrorako.

Bestalde, **II. Mikrobideo Lehiaketa**, "Nafarroako Naturagune babestuen erabilera", DBHko ikasleentzat da.

Lan honetan, 2 minutuko bideo bat egin beharko dute Nafarroako naturagune babestuen erabilerari buruz, kudeaketa-planen arautegiarekin eta erabilera bateragarriekin bat. Parte-hartzaile gazteek banaka edo taldeka egin ahalko dute; talde bakoitzak, gehienez, hiru kide izan ditzake.

Lehiaketak kategoria bat bakarrik izango du eta lanak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahalko dira. Azpituak jartzeko aukera dago bideoan erabili ez duten hizkuntzan. Hauek izango dira sariak: tablet bat talde irabazlearen kide bakoitzarentzat; HD bideo-kamera bat eta naturari

buruzko liburu lote bat zentro irabazlearentzat, eta HD bideo-kamera bat eta naturari buruzko liburu lote bat bigarren tokian amaitzen duen zentrorako.